



Komikizalea dena eta ez dena beteko dituen lana da 'Mattin' en azken argitalpena. REBEKA CALVO

«Autoafirmatze ariketa izan da 'Zarrakamalda', ahalduntze grafikoa»

IÑAKI MARTIARENA 'MATTIN' MARRAZKILARIA

Prekaritate ekonomiko eta afektiboan bizi den Lokatza protagonistaren istorioa kontatzen du 'Mattin' en 264 orriko lan berriak. Aldarrikapen lana izateaz gainera, «babarruna arbari lotzen zaion bezala, hitza eta irudia kiribildu» ditu egileak // **6-7**

Lihoa ardatz, proiektu berria Larraulgo Dina 7 taldearen esku

Emakumeen eskuko lana zena berreskuratzeko proiektu berria abian dute; lihoa Katilutxulon aurkitutako linu-putzuan hamabost egunez beratzen utziko dute, gero haria egiteko // **2**

Zortzi kilometroko ibilbidean azkarrenak Hossain Kaanache eta Lourdes Colomo

San Esteban auzoko Kultur Asteari irteera eman dio Tolosako XXIX. Herri Krosak; 215 parte hartzaile haize eta kronoaren kontrako lehian aritu dira; haurrak bigarrenaz korritu dute // **5**



Akats informatikoagatik denborak ez dira erregistratu. ITZEA URKIZU

Musika eta dantza ardatz hartuta, festa giroa Berazubi eta Ikaztegieta

Tolosako auzoan festei agurra eman diete eta Ikaztegieta urriaren 12an baselizaren atarian egin ohi zuten jaia berreskuratu dute // **4**

Segurako oholtzan eskualdeko hiru dantzari izango dira

40. urteurrenean Iratxe Lizarburu ibartarra, Ane Urruzola billabonatarra eta Xabier Artola irurarra sueltoko txapelaren lehian izango dira // **7**

Emakumeen ofizio zaharra, lihoa berreskuratuz

Larraulgo Dina 7 elkarteak aurten lihoaren inguruko lanketa egingo du eta abiapuntu gisa, erein duten uzta beratzen jarri dute topatu duten linu-putzuan

Jon Miranda Larraul

Larraulgo Ekomuseoa kudeatzen du 2009tik Dina 7 kultur elkarteak. Urteak daramatza ofizio zaharren bidea gai hartuta lanketa egiten. Egurra lehendabizi eta harria (karobia) gero, aurten emakumezkoen ofizio zahar bati heldu dio kultur elkarteak. Katillutxulo mendian, linu-putzua aurkitu ondoren abiatu dute proiektua.

«Linuaren atsekabeak, amai-gabeak» dio esaera zaharrak. Lihoa edo linua izeneko landaretik haria atera eta ehuna egiteak hamaika lan ematen zituen. Prozesu osoa egin nahi dute orain Larraulen, garai bateko ofizioa berreskuratuz. Pili Otaegi Dina 7 kultur elkarteko kideak herrian lihoa landu zela frogatzen duten lekukotzen berri eman du: «Linu-putzu honen berri bazuen Koldo Jauregiren aita zenak eta Antselmo Larrarte herritarrak ere bazuen aditzera. Goiko linu-putzu honetaz gain, badakigu Elizegi-enekoek bazutela Urbeltz izeneko iturriaren aldamean beren linu-putzu propioa».

Lihorekin egiten ziren garai batean jantzi asko, horien artean, maindireak, gorpuak estaltzeko oihaletak, hil-zapiak, burukoak, barruko arropa, zapiak



Bildutako uzta Goikon (Katillutxulo) dagoen linu-putzura eramane zuten atzo. J.M.

edota ohe-estalkiak. «Larraulen Elizegi baserriko Bittori Garmendia Arsuagak, 1850. urte inguruan egin zituen maindireak gaur arte mantendu dira. Bere alaba Maria Txapartegi Garmendiari pasa eta gaur egun, Tolosan bizi den Ignacio Elizaran Txapartegik dauzka», dio Otaegik.

LANDARETIK HARIRA

Lihoa zurtain mehe eta tenteko landarea da eta lore urdinak ditu. Landare bakoitzak 30-35 zuntz ditu eta artilearekin eta kotoiarekin batera ehungintzarako asko ustiatu izan da. «Lihoa lan-

tzeko mekanizatze zailtasunak medio, kotoiaren merkatua gailendu zen XIX. mendean eta gero, XX. mende hasieran zuntz sintetikoek aurrea hatu zioten, desagertzearaino».

Bere garaian, baserri guztietan urtero ereiten zen lihoa, «garia eta artoa bezalaxe». Dina 7ko kideak antzinako erara, lursailak prestatu eta hazia erein dute. Martxoan landatu eta uztailean jaso zuten uzta. Bildutakoa aletu eta atzo eramane zuten, Katillutxulon egokitu eta berritu duten linu-putzura.

«Garai batean erreka bazterrek erabiltzen ziren lan honetarako, baina ura kutsatzen zela ikusita,



Hamabost egun inguru emango ditu linuak putzuan beratzen. J.M.



Otaegi eta Jauregi, Dina 7ko kideak aritu dira proiektua gidatzen. J.M.

inguruan putzuak eraikitzen pasatzen ziren. Garai hartakoak ditugu linu-putzuak», dio Otaegik. Zuntzak eta azala eransteko balio duen pektosa izeneko goma moduko substantzia kutsakorra desegin arte uzten dute lihoa beratzen. «Gutxienez bederatzi urrena baina 15-20 egun ere aipatzen dituzte. Gu gainean egongo gara datozen egunotan». Zabal-zabal eginda, hondoa zarba batzuk eta gainean harri eta zuhaitz adarrak jarrita prestatu zuten atzo lihoa.

Behin linu-putzutik aterata lehortzen jarri eta haria iruteko prozesuarekin jarraituko dute azaroa bukaera Larraulen os-

patuko duten kultur astean. Era-kustaldian lagun izango dituzte Oiarzungo Estanis Urdanpilleta eta Bixen Lartzabal.

EMAKUMEEN ESKUKO LANA

XVI. mendean burdingintza eta balearen industriarekin batera, lihoak garrantzia handia hartu zuen. Otaegiren ustez, «hain esanguratsua izan arren, emakumeen esku zegoenez ia ez da horren berri jaso».

Neska gazteei, 11 urte betetzen zituztenean, etxekoek soro mutur bat ematen zieten, lihoa erein eta ezkontzarako *zuritasuna* prestatzen has zitezen. «Baina euskal emakumearentzat ez zen soilik diru iturri bat, alargun geratuz gero bizibide bat ere bazen, ezkongabea izanda ere berdin. Aske eta bere buruaren jabe izateko bidea ireki zuen lihoak, autoestimurako ateak zabaltzeko zizkien emakume haiei».

Linuari buruzko hainbat testigantza eta ipuin jaso dira. «Antzina lan horietako asko iluntzetan egiten ziren, sutondoan, kantuek eta kondairak elkarri kontatzen zizkieten eta horrela arintzen zuten hain luzea izaten zen lana».



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Hezkuntza

Plazak libre. Tolosako Hizkuntza Eskola Ofizialak, frantseseko eta ingelesko maila guztietan plaza hutsak gelditzen direla jakinarazten du. Plazak hauek, urriaren 18, asteartean (frantsesa) eta urriaren 19, asteazkenean (ingelese) esleitu dira Tolosako HEOKo 3. solairuan (Paper Kalea, 1) itxarote-zerrenda jarraituz. Begiratu ordutegia www.eoitolosahetxeko.hezkuntza.net weborrian.

Aurrez aurreko esleipenaren ostean plaza librerik balego, matrikula irekia geratuko da 2017ko urtarrilaren 31 arte.

Galdutakoa

Argazki kamera. Ostiralean Iturrioztik Zelatunerako bidean argazki kamera galdu da, fundatutako gogor batean zegoen. Norbaitek aurkitu badu deitu dezala zenbaki honetara: 647 76 56 56.

Ahoko birgaitze osoa, Binai Hortz Kliniketan

25 urtetako eskarmentua dute Binai Hortz Kliniketan; ortodontziak eskaintzen hasi dira eta inplanteen sustapena egiten ari dira

Zerbitzu eskaintza zabala eta 25 urtetako eskarmentua dira Tolo-sako Binai Hortz Klinikako berezitasunak. Hori gutxi ez, eta Irunen duten beste hortz klinikari esker, laborategi propioa dute. Orain gainera, bi eskaintza berri dituzte: ortodontziak egiten hasi dira eta inplanteen sustapena egiten ari direnez, merkatu egin dituzte. Dentista berria dute Tolo-sako Binain, Maialen Igarzabal Murua eta berarekin batera aritzen da Garbiñe Vela Arburua.

Igarzabalek azaldu duenez, era guztietako zerbitzuak eskaintzen dituzte; finean, ahoko birgaitze osoa egin daiteke Binain. «Era guztietako zerbitzuak eskaintzen ditugu; inplanteak, ortodontziak, zeramikak, proteesi finko zein mugikorak... Noski, hortzeria ere garbitzen dugu, txantxarrak artatu...».

Orain arte ez zituzten ortodontziak eskaintzen, baina horretan ere hasi dira. Eskaintza zabala dute; «brackets bidezko ortodontzia finkoak eskaintzen ditugu eta baita ortodontziaren munduan berritasuna ekarri duen Invisalign tratamendua ere».

INPLANTEAK

Igarzabalek azaldu duenez, hortz klinikara joaten direnak batez ere, zubiak eta inplanteak behar dituzte, hau da hortz bakkarraren edo gehiagoren hutsunea dute. Binai Hortz Kliniketan arazo horri irtenbiderik egokiena ematen diote. «Inplanteak prezio oso onean ateratzen dira, baina hauek edo zubiak jarri erabakitze-ko arazoaren diagnosi osoa egiten dugu. Zubi eta inplanteen ar-

teko desberdintasunik nabarmenena da zubiak jartzeko ondoko bi hortak ukitu behar ditugula eta inplantearekin ez. Ez da ikaragarriko prezio desberdintasuna batetik bestera, inplanteak promozioan ditugulako». Igarzabalek pertsona bakoitzaren azterketa egiten du eta bezeroaren erradiografia egiten du hezurra nola dagoen ikusteko. Hezurra- ren arabera inplantea jarri daitekeen edo ez ikusi eta gero besteak beste, bezeroaren beharrak, bizimodua eta adina hartzen dituzte kontuan arazoari irtenbide egokia eman ahal izateko. «Hortz guztiak jarri behar dituztenentzat ere baditugu prote- siak», gaineratu du dentistak.

Protesi, inplante edo zubiak izan, denbora epe labur batean izaten dituzte eskuartean, izan ere, Irunen ere badago Binai Hortz Kliniketa eta bertan labora- tegia dute. «Laborategi propioa izateak lanak azkarrago egiteko aukera ematen digu, bertan dau- kagu lanak egiteko beharrezkoa den guztia. Lanak astetik astera ateratzen ditugu».

PADI PROGRAMA

Osakidetzaren Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren (PADI) barruan ere badaude. PADI pro- grama 7 eta 15 urte arteko haur eta gazteentzako zerbitzua da. Behin betiko hortzetan sortuta- ko txantxarrak artatzen dituzte eta hortzeria guztiko garbiketak egiten dituzte programaren bar- ruan, hau da, erabiltzaileek doan jaso ahal dute zerbitzua haurrei etxeetara iristen zaien gutuna eramanda.



Maialen Igarzabal Murua da Binai Hortz Klinikako dentista. R. CALVO

Ortodontziak ere egiten dituzte Binai kliniketan. Betiko bracketsak dituzte, baina Invisalign tratamendu berritzailea ere eskaintzen dute, ia antzematen ez den ortodontzia, hain zuzen.

Ortodontzia ikusezina

Brackets ezagunek sor- tzen dituzten hainbat eragozpen ekidin ahal dira Invisalign trata- menduari esker.

Bracktsak zauriak sortu ditza- kete eta jartzerakoan ere mina eragin dezakete. Invisalign trata- mendua berriz, erosoagoa dela dio Maialen Igarzabal Murua dentistak. «Plastikoarekin egiten dituzten plakak dira. Batez ere, helduek erabiltzen dituzte, ken- du eta jarri egin daitezkeenez gazteek ez erabiltzeko arriskua baitago. Baina edonork erabili ditzake», esan du.

GARBITASUNA

Plaka hauek ia ez dira ikusten, gardenak baitira, eta jarri eta kendu daitezkeenez, garbitasu- nerako egokiagoak dira. «Lo egi- teko ez dute arazorik sortzen, eta otorduetan eta hortzak garbitze-



ko kendu daitezke», azaldu du Igarzabalek.

Onura asko dituela dio dentis- tak: ez da ikusten ia, hitz egitera- koan ez du arazorik sortzen, ez du zauririk eragiten, garbitasu- nerako egokiagoak dira...

15 egunetik behin plaka aldatu egiten dute, «hori da bezeroaren lana, plaka aldatzea». Dentistak

lana aurretik egiten du; «nik molde bat egiten dut eta argazki batzuk atera, eta AEBtara bidal- tzen ditut. Hango lantaldearekin batera bakoitzaren tratamendua zein izango den eta zenbat plaka beharko diren ikusten dugu. On- doren, bezeroak 3D irudiak di- tuen bideo baten bidez nola gel- dituko den ikusi ahal du».

Berazubik atzokoan agurtu zituen aurtengoz auzoko festak, arratoia errez; eta Ikaztegieta berriz, urteetan etendako ohitura berreskuratu zuten, Pilareko Andra Mari basilizaren inguruko festarekin

Pilarren bueltan, musika eta dantza



Auzo bazkariaren aurretik Tolosako Musika Bandak girotu zuen Berazubiko jaien azken eguna; arratoia errez agurtu dituzte festak. REBEKA CALVO

Erredakzioa

Ongietorria izaten da, beti, aste erdiko jai egun tentagarria. Urriaren 12ko festa moral bikoitze hitzordua izaten da, bai, baina urteetako

tradizioek lehia irabazten diete batzuen eta besteen iritziei.

Horrela, eskualdean bi plaza-ren bueltan izaten dira Pilareko Andra Mari eguneko ospakizunak: Tolosako Berazubi auzoan eta Ikaztegieta Pilareko Andra Marien basiliza atarian.

Tolosarrek joan den asteburu-

ko jai egunen errenkada probestu zuten, auzoko festen abiada hartu, eta lan egunak arintzeko. Baina atzo amaitu zitzaizen zorioneko astea, jaietako egun handiak itxi baitzuen egitaraua.

Tolosako Musika Bandak girotu zituen bazkal aurreko minutuak, eta harrera bikaina izan

zuen emanaldiak. Arratsaldean, berriz, Mariatxiren doinuaz gozatu zuten jaiak, arratoia erre bitarte.

BERRESKURATUTAKO USADIOA

Ikaztegieta, berriz, hainbat urteren ondoren berreskuratu dute urriaren 12an Pilareko Andra

Mari basilizaren atarian egin ohi zuten jaiak.

Meza nagusiaren ondoren, Alegiako Sutarri dantza taldeko gaztetxoek emanaldia eskaini zuten, eta dantza gosez geratu zirenek, erromeriarekin eta toka txapelketarekin eguna biribiltzeko aukera izan zuten.

URRIAK 16 · VIANA

HARTU, TENKA, TIRA!

Nafarroa OINEZ '16

VIANA · LODOSA

AUTOBUSA

Izen ematea: 12€

Atarikideok: 10€

Ostiralean azken eguna

Informazio gehiago Galtzaundin



Zenbait urteren ondoren, ikaztegieta berreskuratu egin dute urriaren 12ko ospakizuna. I. GARCIA LANDA

Entrenamendurik onena

Hossain Kaanache eta Lourdes Colomo izan ziren, atzo, Tolosako XXIX. herri krosetako txapelak; helduen mailan, 215 parte hartzailek osatu zuten 8 kilometroko ibilbidea



Haur eta gaztetxoek krosa bigarren antolatu dute aurten, eta helduen abiada ikusita, grina handiz irten ziren neska-mutilak, itzuli txikia osatzera. I. URKIZU

Itzea Urkizu Arsuaga

Luzea eta aldapatsua zen lehen, eta izena emateko errespetu handiagoa sortzen zion askori. Azken urteotan, ordea, San Esteban auzo elkarteak antolaturiko krosak ordeka irabazi du eta, horrekin batera, azkartasuna: 25 minutuan biribildu zuen 8 kilometroko ibilbidea, Hossain Kaanache oriotarrak. Akats informatiko bat medio, gainerako parte hartzaileen denborak ezin izan zituzten erregistratu, eta bakoitzak bere kronoarekin fidatu behar izan zuen.

Ferialekuan korrikalariak bezainbeste ziren haien senide eta lagunak, espaloietako animoek ere egiten baitituzte krosak erakargarri. Irteera eman orduko, ordea, animo oihuak ahaztu eta lasterketara begira jarri ziren gizon-emakumeak. Askorentzat, gehienentzat ez esatearren, datozen proba garrantzitsuetarako entrenamendu bikaina izaten da Tolosako Herri Krosa; Behobia-Donostia dute jomugan hainbatek

eta, koska bat gorago aritzen direnek, Gipuzkoako nahiz Euskal Herriko kros txapelketak.

Hossain Kaanache oriotarrak estreinakoz parte hartu zuen proban, eta «gustura» geratu zen egindako lanarekin: «Test bat egin nahi nuen. Ez nuen lasterketa eza gutzen eta, egia esan, ezusteko polita izan da niretzat. Lasterketa bizia da, oso giro polita dago eta gustura egin dut korrika». Ibilbideak azkartasuna ematen diola ere nabarmendu zuen oriotarrak: «Oso azkarra da, haize pixka bat ere bazegoen, eta aldaparik ez dagoeenez, aparta da korrika egiteko». Gi-

roarekin batera, aurkarien sasoia hizpide izan zuen: «Lasterketa guztietan maila ona izaten da, eta gaur zortea izan dut. Indartsu atera nahi izan dut eta, haize pixka bat izan arren, azkar atera ahal izan dugu, eta bakarrik iristea lortu dut».

Lourdes Colomo zizurkildarrak, berriz, erdi gaixo hartu zuen parte proban, baina horrek ez zion irabaztea egotzi: «Katarro pixka batekin nago, eta ohi baino gehia-

go kosta zait. Hala ere, gustura nago lanarekin. Lasterketa hau gustukoa dut eta, horrez gain, igandeko 15 kilometrokoa nahiz Behobia-Donostia prestatzeko oso momentu onean antolatzen dute».

Sailkapenak sailkapen eta gorputzaldiak gorputzaldi, helmuga zeharkatutakoan haizeari lehia irabazi izanaren sentipena erakutsi zuten, parte-hartzaile guztiek, irribarre batez.

AFIZIOA SORTZEKO HITZORDUA

Helduen abiada ikusita, gaztetxo askori korrikarako harra sortzen zaie. Atzo, euren ere korrikalari lanetan aritzeko aukera izan zuten, eta itzuli laburrak arnasa azkartu zuten neska-mutilei.

ARGAZKI GALERIA

Tolosako XXIX. Herri Krosak eman-dako irudi guztiak hemen ikusgai: www.ataria.info/tolosa

HELDUEN PODIUMA

Gizonezkoak:

1. Hossain Kaanache.
2. Unai Señorán.
3. Ibai Madina.

Emakumezkoak

1. Lourdes Colomo.
2. Maialen Muñoz.
3. Maria Lasa.



KAIALDE JATETXEA

Mugarik gabeko itsaski jana Hondarribiko Kaialde jatetxean bi pertsonarentzat

- Etxeko aperitiboa.
- Mugarik gabeko itsaski jana: datilak, txirlak, ganba handiak, otarrainxkak, zigalak, txangurrua eta abakandoa.
- Nahi adina edari, mugarik gabe.
- Kafea eta txupitoak aukeran.
- Hornidurak aukeran: entsaladak, patatak eta piperrak

78,00€

deskontua **%52**

HONDARRIBIA - GIPUZKOA

ERABILTZeko EPEA: 2016ko martxoaren 31ra arte

Rebeka Calvo Ibarra

Lokatzen bozeramaile lanetan dabil azken asteetan Iñaki Martiarena *Mattin* marrazkigilea. *Zarrakamalda* komiki liburua aurkeztu berri du. Lan mardula da *Zarrakamalda* eta bere bilakaera pertsonal eta profesionalean jauzi bat dela esan du, are gehiago, «ahalduntze grafiko» bat izan dela nabarmendu du. Komiki liburuak aldarrikapenetik baduela dio, baina harago iritsi nahi izan duela, «eraiki edo sortu» nahi izan du, Lokatza protagonista bezala. Baina hor dago koxka edo drama; «ez diote eraikitzen uzten».

Lokatza da 'Zarrakamalda'ko protagonista, txanponak lantatu ditu 50 euroko landareak jaioko direlakoan. Pertsonaia itxaropentsua irudikatu nahi izan al duzu?

Nik oso ondo ezagutzen dudan pertsona da Lokatza, baina ez naiz ni. Batez ere, mina dauka Lokatzak. Prekarietate ekonomiko eta afektiboan bizi da. Ez da kokatzen. *Ekomiki* honek Lokatzaren bilakaeraz ari da, Lokatzaren kronika egiten du; bere lekua aurkitu ezinik dabilen pertsona baten kronika da, historia. **'Ekomikia' aipatu duzu, genero berri bat sortu duzu.**

Eta oso eroso nago. Atera kontuak *Ekolurra* aldizkarian tira batekin hasi nintzen eta *Ekomikia* zuen izena. *Zarrakamaldan* itxuraz nekazaritza da haria, baina sakonean gai gehiago tratatzen edo ukitzen ditu komikiak. Ez da guztiz landa eremuko historia bat, hiri-nekazaritzako historia bat dela esango nuke. Haria da Lokatza eta bere bilakaera, gorabeherak eta borroka. Lubaki batean bizi da eta barruan daukan korapilo hori askatzeko bere lekua aurkitu behar du. Errotu, bestela erotu, esango nuke.

Gizarte honetako joera da hori, geroz eta gauza gehiago ditugu inguruan eta aldi berean geroz eta isolatuago gaude. Nire bizipenetan oinarritutako lana da, baina kritikari eta irakurleek esan beharko dute. Egia da baten batek jada esan didala komikia soziala dela eta gaur egungo gaiak tratatzen dituela, puri-purian dauden gaiak. Hori horrela da.

Badirudi inguruak Lokatza erasotzen duela.

Hain zuzen ere hori da betiko gaia, norbera, pertsona, nola kokatu inguruan eta inguruarekin zein harreman duzun ikustea. Hor hainbat aukera dituzu; ingu-

«Esprinter izatetik maratoni luze bat egitera pasa naiz»

IÑAKI MARTIARENA 'MATTIN' MARRAZKILARIA

'Zarrakamalda' komiki liburua argitaratu berri du 'Mattin'ek. Ia 300 orrialde dituen lana da eta Porlandian kokatu du «prekarietate ekonomiko eta afektiboan» bizi den Lokatza protagonista.



R. CALVO

rua aldatu eta edertu, edo egokitu. Lokatza kinka horretan dago. **Ez da istorio itxia, irakurle bakoitzak osatu dezake.**

Hori da eta irakurri dutenek esan didate oso irakurterraza dela eta oso dinamikoa. Egia da nik ere ahalegina egin dudala oro har, grafikoki, formatuarekin... Esprinter izatetik maratoni luze bat egitera pasa naiz. Atera kontuak, ia 300 orrialdetako lana da. Gidoi aldetik bai saiatu naizela elkarrizketak lantzen. Hain zuzen ere komiki bat paperezko zinema bat da eta ahalegin ikaragarria egin dut.

Nola antolatu zara komiki luze hau egiteko?

Nire bilakaera pertsonal eta profesionalean horrelako liburu bat egitea falta zitzaidan. Prentsa eta fanzinea dira nire jatorria eta



FITXA

Argitalpena. *Zarrakamalda* komiki liburua.

Argitaletxea. Txalaparta. **Orri kopurua.** 264.

Prezioa. 21 euro.

hortik ateratzeko bilakaera bat behar nuen. Batez ere, idazten hasi nintzen; elkarrizketak, pasarteak, gogoetak... eta ondoren etorri zen grafismoa edo marrazkia aukeratzea, eta behin hori erabakita, pixkanaka-pixkanaka, egitura eginda, osatzea tokatu zen. Lan handia izan da. Oso pozik nago. Komikizalea eta ez dena ere beteko dituelakoan nago.

Ez daukagu komikiak irakurtzeko ohiturarik.

Hain zuzen ere autoafirmatze ariketa bat izan da. Are gehiago, ahalduntze grafiko bat izan dela esango nuke, komikiak ikaragarriko aurreiritziak ditu, umeei lotutako produktutzat hartzen da eta gogoia neukan helduei zuzendutako komiki bat egin eta historia mardul bat osatzearena.

Lokatza eta Porlandia.

Lokatza Porlandian bizi da, eta ez da kokatzen Porlandian, eta zer edo zer egin behar du larritasun eta ezinegon horrekin. Bere lekua eraiki nahi duen pertsona baten historia da.

Antimilitarismoa, AHTa, zezeketen aurkako mugimendua... Aldarrikapen oihua berri ere.

Gure jatorria hori da, ukaezina da, kontrakulturaren, aldarrikapenean kokatzen naiz. Gu belau-naldi jakin batekoak gara, gure erreferentziak horiek izan dira, baina nire burua bai ikusten dudala bilakaera batean; komikitik ilustraziora salto egin nuen, haur literaturara batez ere... Egia da lan honek baduela jatorriko kutsu bat, baina ez naiz erabat jatorrira itzuli. Hortik harago doan lana da; ez da aldarrikapen soilengan geratzen eta kito.

Eraiki ere egiten du...

Hori da, hor dago koxka, baina hortxe dago Lokatzaren drama ere, ez diotela eraikitzen uzten. Eraiki baino, sortu izan daiteke egokiagoa. Jakin badakigu sormena dela estres psikologikoak bideratzeko modu bat.

Zergatik 'Zarrakamalda' izenburua?

Baserri munduko lanabes bat da, eta lanabesak historiaren muina biltzen du; sasiz betetako eremu bat nola garbitu. Tresna hori eskutan izan nuenean eta erabili nuenean, ez nekien nola izena zuen eta jakin-mina sortu zitzaidan. Filologismoan ito gabe, baina hiztegian hitza aurkitzerakoan ikaragarri gustatu zitzaidan hitza; doinua, esanahia... dena. Bere barruan gauza asko biltzen ditu: malda, aldapa... Hitz anarkonikoa da, doinu polita du, zaharra da... Askok gustatu zitzaidan eta segituan etorri zitzaidan izenburua izango zela. Historiaren mamia biltzen du; sasiak, borroka hori, aldapa, Porlandia aldapatsua baita...

Sinbolismoz betetako lana da hau ere.

Noski. Nire lanik pertsonalena



Eskualdeko hiru dantzari, Euskal Herriko sueltoko lehian

Larunbatak hartuko du Euskal Herriko 40. dantza txapelketa, Seguran; Xabier Artola, Iratxe Lizarburu eta Ane Urruzola lehian ariko dira

da eta lotuta dago ahalduz grafiko eta autoafirmatze horrekin. Horrelako lan bat behar nuen.

Lan mardula egiteko beharra zenuen, beraz.

Behar nuen bai. Komikigintza oso baztertuta egon da, plazarik ez du izan, plaza falta du komikiak, eta buruari eragiten ondorio horretara iritsi nintzen; liburu formatuan istorio bat kontatu behar nuela. Baina ez nekien zenbat orrialde izango zituen. Alboratze horretatik ateratzeko beharra eta gogoia neukan. Adierazi nahi nuen komikia hor dagoela, eta negarrez egon beharrean, egin, komikia hor dagoela adierazi. Publikoak jakin dezan badagoela istorio bat kontatzea komiki baten bidez.

Eta lortu duzu.

Bai, eta jada irakurri dutenen aldetik kritika onak jaso ditut. Oso kontentu nago.

‘Zarrakamalda’ aipatu dugu, liburuaren izenburua, baina ez da liburuan agertzen den baserri munduko hitz bakarra, pedagogia pixka bat egin nahi izan duzu?

Noski, gidoia egiterakoan oreka bat bilatu nahi nuen. Komikia hitza eta irudia dira eta babarruna arbari lotzen zaion bezala, nik hitza eta irudia kiribildu ditut.

Irakurlea ez nuen ito nahi doktore-tesi batean, informazioa ale aleka eman dut. Lan handia egin dut elkarrizketetan, hutsuneetan, isiluneetan... Gidoia ere lan handia izan da.

Umorea ere erabili duzu.

Umorea minari aurre egiteko erabili izan dut beti. Arkatzaren mina eta mina. Horregatik da *Ekomiki* bat, porlanak jan gaitu, eta min horri aurre egiten saiatu naiz. Ez dut katastrofista izan nahi, baina hori horrela da, eta nik irtenbideak eman nahi izan ditut. Ez nuen salaketan geratu nahi, nire ekarpen xumea da.

«Lokatza lubaki batean bizi da eta daukan korapilo hori askatzeko bere lekua bilatu behar du»

«Nire bilakaera pertsonal eta profesionalean horrelako liburu bat egitea falta zitzaidan»

Belardoren istorioekin jarraitzen al duzu?

Belardo jeloskor dago, Lokatza gora eta behera, arreta eskatzen ari zait. Eta zalantzarik gabe Belardo beste lan ildo bat da. Agian

egia da haur eta gazte literaturak batzuetan baduela arriskua sobera gozoa izatearena, eta posible da Lokatzaren bitartez amorreri hori bideratzea.

Belardok esan ezin dituenak Lokatzak esaten ditu, beraz.

Baliteke. Baina egia da ere, ezin direla konparatu. Belardo koloreen mundua da eta aipatu dudana bezala nire bilakaeran zuri-bel-tzetik kolorera egin nuen salto.

Belardo esprinterra da gainera...

Hori da, istorio motzetan ibiltzen da. Eta iritsi zen momentu bat nire bizitzan zeresan asko neukala, ganberan gauza asko nituela, eta Belardoren bitartez ezin nituen atera, formatua aldatu behar zen.

Eta hustu al zara?

Momentu honetan ospatu beharko nuke. Ospatu eta gero tiraderan baditut bizpahiru proiektu. Gutxi barru beste bi lan aterako dira. Batetik, ilustratzaile bezala, Cristina Enea fundazioak ipuin liburu bat argitaratu du, koloreetan, eta horretan ilustrazioak egin ditut, oso liburu polita da; eta bestetik aurki Altzaren istorioa azaltzen duen liburu ederra aterako da. Eta gainontzean sortzen jarraitzen dut, bi arloak uztartuz, artea eta natura. Bi oinarri horiek ditut.

I. Urkizu

Sekula baino bereziagoa izango da, aurten, Segurako dantza sueltoko txapelketa. Baratze pilotalekuak 40. Euskal Herriko txapelketa hartuko du, eta Tolosaldeak ordezkari zabal izango du bertan.

Guztira 10 bikote ariko dira fandango eta arin-arin finena biribiltzeko lehian. Txistularien doinuan dantzatzeko dute fandangoa eta, arin-arina, berriz, urteroko moduan, trikiti eta panderoak eskainiko dizkie dantzari.

Zozketa bidez aukeraturiko hurrenkerak hala erabakita, Ira-

txe Lizarburu ibartarra eta Ibai Jimenez zaldibiarra lehenak izango dira oholtzaratzen, Ibarra ordezkatzuz. Oin eta besoak mugitzen bigarrenak izango dira Ane Urruzola billabonatarra eta Iker Sanz lezotarra, eta Villabona ordezkatzuko dute. Azkenik, Iru- ra ordezkatzuz dantzatzuko dute Xabier Artola iruratarrak eta Idoia Besada pasaitarrak, bosgarren lekuan.

18:00etan hasiko da txapelketa eta, urteurrenaren berezitasuna medio, Seguran egun osoko festa izango da dantzaren inguruan. Estreinakoz, gainera, sarrera aurrez eskuratzeko aukera izan da.



Lierni Kamio billabonatarra eta Iker Sanz lezotarra, garaila izan ziren iaz. I. URKIZU

Hilberriak eta urteurrenak

**ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



OSTEGUNA, 2016KO URRIAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.info
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.info
Bezero arretra zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.info

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 13

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. San Esteban auzoko Kultur Astea. **19:00.** XIV. Patata Tortilla lehiaketa. **Ondoren.** Luntxa. **22:30.** Liquidacion total antzerkia, Trebeki Teatoren eskutik.

Tolosa. *Ahora si, antes no* pelikula-ren proiektzioa. Zine foruma. Jatorrizko bertsioan. 19:15 eta 21:45ean, Leidor antzokian.

Tolosa. Jesus Vallejoren egur lanen erakusketa. 40 urte baino gehiago egurra zizelatzen dabilen Jesus Vallejo artistaren erakusketa da. Aranburu jauregian, urriaren 29a bitartean.

Zizurkil. Zizurkilgo Elizpe Jubilatuen Elkarrekin bazkaria antolatuta du azaroaren 6rako, 80 urtetik gorako elkarrekin kideei omenaldia egiteko. Elkarrekin bazkide guztiak eta bazkide ez direnak ere gonbidatzen ditu omenaldia. Bazkaria Oianume jate-txean izango da, 40 euro ordainduz. Bazkideek 30 euro ordainduko dute, eta gainerako zatia elkarrekin ordainduko du. Izena emateko aukera egongo da urriaren zehar, Elizpe jubilatuen elkartean.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eskuadeko berriak, Irene Arinen *Kale Kantoitik*, Jon Ander Galarragaren Ekokultura, Tolomendiren tarteak, Agurtzane Larrañagaren sukaldaritza makrobiotikoa, kultur agendaren errepasoa eta lehiaketa. Deitu 943 698038 telefono zenbakira edo whatsapp mezua bidali 687 410033ra 10:45etik 10:55era. Eta eskuratu *Kantuz 1965-2015 memoria eta desira* disko eta liburua.

11:00-12:00. Hamaiketakoa.

Villabona-Aiztondoko eta Anoetaldeko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko Jaioak.

Musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko saioak utzi-tako onena.

21:00. Ataria iluna.

28 KANALA

12:30. Ertzak.

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

20:00. Tolosako Udaren Osoko Bilkura zuzenean.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:00. 28 Klip.

22:30. Ikusi Irratia. Panda Raid.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa eta gauekoa.

Morant Barber, Rosalia.

Zabalarreta lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Goiz partean giro lasa izango dugu. Hodeiak eta ostarteak izango dira eta hego haizearen eraginarekin 18-19 graduko tenperatura eta giro atseginak izango ditugu. Arratsaldean haizeak mendebaldeko ukitu handiagoa hartu eta hodeitsu geratuko da. Zaparrada batzuk botako ditu. Asteazkenean baino aukera handiagoa izango denez, gehiago bustiko du eta tarteka mardul samar botako du.



Bihar. Oraindik ere giro nahasiarekin jarraituko dugu, baina pixkanaka eguraldiak hobera egingo du. Goizean eta arratsalde erdirarte zerua estalita mantenduko da eta euria egingo du. Zaparrada mardulenak goizean izango dira. Arratsalde erditik aurrera atertzerat egin eta ostarteak zabalduko dira. Tenperatura ipar-mendebaldeko haizearen eraginez freskoa izango da eta tenperatura balio altuenak 15-17 gradutan geratuko dira.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95 · ataria@ataria.info



Uzturpeko ikasleek aurretik landatutako piperrak jaso zituzten. ATARIA

Aurretik egindako lanaren emaitza

Ibarrako Uzturpe Ikastolako ikasleek herriko produktu kuttuna gertutik ezagutzen dute; lehen, landaketa tokatu bazitzairen ere, oraingoan piperrak jaso dituzte

Erredakzioa Ibarra

Iragan ostegunean Ibarrako Uzturpe Ikastolako DBH 4. mailako ikasleak ikasgelaren lau paretak baratzearen zabaltasunagatik ordezkatu zituzten. Helburua, herriko produktu kuttuna, piperra, platerera iritsi bitarte jasan behar duen prozesua bertatik bertara ezagutzea da. Honela, baratze gintzaren lana ere balioan jartzeko bidea ematen dute tankerako ekimenek.

Iragan maiatzean, ikasleek prozesuaren lehen faseari ekin zioten; hau da, landaketari. Oraingoan berriz, piperrak jaso eta ontzietan sartu zituzte.

Ekintza aurrera eraman ahal izateko Uzturpe Ikastolako Ibarra 789 taldearen laguntza izan zuen. 2013an martxan jarritako ekimena da, gazteak sentsibilizatzeko helburuarekin.

